

HERIOREN MANDATARIA

JOSEBA LOZANO



n a r r a t i b a •

errein

HERIOREN MANDATARIA

Narratiba, 99

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

© Joseba Lozano

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-166-0

L. G.: SS-1174/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Joseba Lozano

HERIOREN MANDATARIA



Gizonak neskari begiratu zion ezkutalekutik. Kale estu barkarti haiek zeharkatzen ari zen takoiien gainean. Bazekien gauza dezente hari buruz; informazio ona zeukan, ikerketa azkar baina profesionalari esker lortutakoa. Samanthak hogeita bi urte egin berriak zituen, eta hiru zeramatzan alokairuzko etxe ziztrin batean bizitzen, hiriaren erdialdetik urrun. Ez bairik gabe, hura ez zen, ezta gutxiagorik ere, herrialde hartara heldu zenean berak amestutako bizimodua. Ez zen zaila neska hura irudikatzea bere apartamentuan, miseriak hartutako langile-auzo hartan arratsaldero izu-ikaran esnatzen, etxea behin eta berriro erasotzen zuten zarata ugarien eraginez: gainaldetik etengabe aireratu eta lurreratzen ziren hegazkinak; leihoaz bestaldeko autobidea zarrastatzen zuten ibilgailuak, metalezko tximisten modura; behealdeko garbitegi zaharra dardarka jartzen zuten dozenaka garbigailu eta lehorgailuak; bolumen altuegiko telebistak; ordutegi ezberdinak zirela-eta, aurpegiz baino ezagutzen ez zituen auzotarren arteko liskar amaigabeak... Ez, argi zegoen hura ezin izan zitekeela berak amestutako bizimodua.

Gau hartan ere, bere lanbideko emakumeen antzera ibiltzen zituen galtzada-harriak: airoso, lotsagabe, aldakak ezker-eskuin nabarmen kulunkatuz, nahiz eta kale-kantoi itogarri haietan oinezkorik egon ez... atzetik jarraitzen zion gizona izan ezik. Goibeltasunak hango zoko-moko guztiak lohitzen zituen eta zikinkeriaren usain kirastua atzematen zen. Gora begiratu, eta teilatuek elkarri besarkatzerakoan uzten zuten zirrikitutik, zeru-zatitxo bat ikusten zen, beltz-beltza, zeinetan hodei grisak irristatzen baitziren ziztu bizian. Ordurako ateri zen; baina, kaleak busti-busti eginda zeudenez, haraino iragazten ziren haize boladek serpentinen baten modura freskatzen zituzten inguru guztiak, hotzaren sentsazioa areagotuz. Halako eguraldi kaskarrarekin, gauak ez zion opari handirik ekarriko neskari: pozik egon zitekeen, bezero pare bat lortuz gero.

Ileorde arrosaren eta larru sintetikoazko berokiaren azpian, tanga horitxo zeraman Samanthak, ezer ez gehiago; eta tangaren barruan, zakila, ipurmasail beltzaranen artean ondo kostata ezkutaturik. Hotza zela-eta, gogortuta zeuzkan titiburuak puxiken moduko bular harro batzuen tontorrean. Neurrigabeko titi haiek jaioterrian jarri zizkioten, Brasilen, hemezortzi urte bete zituela ospatzeko. Garai hartan, Roberto deitzen zen oraindik. Atlantikoa itxaropenez beterik zeharkatu, eta zertarako? Bost duroko bizimodu baten kontra tupust egiteko, besterik ez.

* * *

Bideko zulo batek errotik atera zuen Marco ametsetatik. Amets haietan, trabesti bati jarraitzen ari zitzaion hiri ezezagun eta ilun bateko kalezulo zikinetan barrena. Berriro, amesgaiztoak. Nonbaiten irakurria zuen, amets egiten dugunean, beti izaten garela pertsegituak, eta oso noizbehinka beste inoren pertsegitzaille; baina, berari alderantziz gertatzen zitzaion. Begiak neke handiz zabaldu zituen. Burukadak ematen ari zen furgonetako alboko kristal hotzaren kontra. Atzealdean eserita zihoan. Furgoneta hura taxi gisa hartu berria zuen ordu laurden lehenago kostaldeko herrixka batean, lan-elkarrizketa egin behar zioten etxaldera joateko. Arratsalde berandu hartako azken argiak itzaltzen ari ziren poliki-poliki, furgonetak aurrera segitzen zuen bitartean. Kristaleko lurrunean biribil bat egin zuen eskuarekin. Begi bakarreko harrizko zubi baten konkorraren gainetik igarotzen ari ziren. Erreka zetorren azpitik, bizi-bizi, apartsu eta saltoka, azken egunetako euriek nabarmen hazita. Kanta zahar bat aditzen zen irratian, furgonetako gidariak lantzean behin ahopeka abesten zuena. Suge baten modura bihurritzen zen errepide mehar batetik mugitzen zen ibilgailua; ezker-eskuin, lugorriak eta belardi zabalak, udazkeneko zuhaitz nekatu batzuek zipriztinduta. Harresi luze-luze batzuek markatzen zituzten lur-sailen arteko mugak; altura gutxiko harrisiak ziren haiek, anabasa zoroan kokaturik, erdi eroriak tarteka, erraldoi batek han eta hemen hozka egin izan balie bezala. Betazalak inoizkorik astunen sentitzen zituen Marcok. Furgonetaren triki-trakak logura ematen zion, amak sehaska kulunkatzerakoan umearekin egin ohi duen antzera.

Leihatilaren kontra bermatu zuen kopeta, eta begiak itxi zituen ostera.

* * *

Neskari jarraitu zion aurreko gauetan bezalaxe, Samantha adreiluzko labirinto hartan ausartu bide zen, autobus gelto-
kitik parkera zihoan ibilbidea azkarrago egite aldera, parke hartan lan egiten baitzuten prostituzioan aritzen ziren hiriko trabesti gehienek. Ibiltzerakoan, hamabi zentimetroko takoiak mokokada ederrak ematen zizkioten arratsaldeko zaparradak putzuz betetako zoruari.

Isiltasun izozgarri haren erdian, neskak zerbait entzun bide zuen haren bizkarrera; izan ere, bat-batean gelditu, atzera eramane zuen burua eta begira geratu zen, gezurrezko betile luzeen laguntzaz iluntasuna zulatzeke esperantzarekin. Antzemango ote zuen baten bat zetorrela bere atzetik? Gizonak, zer gerta ere, hormaren kontra estutu zuen sorbalda. Isilunea. Arnasarik hartzera ausartu gabe zeuden biak. Itogin aspergarri bat jausten ari zen teilatu-hodi baten zulotik behera, tantaz tanta, malko jarioan, eta ur-tanta bakoitzak lurra jotzerakoan ateratzen zuen tiki-taka hura erloju zaharren penduluen soinu hipnotikoa begitandu zitzaion Samanthari. Itogina baino ez. Bazirudien neska lasaitua hartuta zegoela, zama batez arinduta nonbait, bere susmo txarren jatorria zein zen konprobatu eta gero; hortaz, abian jarri zen berriro, eta haren atzean... gizona. Guztiagatik ere, Samantharen ibilera ez zen lehengoa bezain patxadakoa, ez eta hain nabarmena ere.

Gero eta bizkorrago zebilen, urrats txiki arinak eginez, barkadade hartan barreiatzen zirenak hortz-karraskak balira bezala. Kaleko bihurgune batean, horma baten magalean pilaturiko zabor-poltsa batzuekin behaztopatu, eta oihu ito bat bota zuen; txikia, bai, baina, bere nahigaberako, gizon-ahots lodiegiaz sortua.

Gizonak bazekien zer sentitu behar zuen Samanthak une hartan: hamaika aldiz ikusitakoa zen. Beldurra. Arrazoirik gabeko ikara isil bat gizentzen ari zitzaion neskari etxarte kirasdun haietan, eta beldurrak pausoak azkarrago ematera bultzatu zuen, sagu-zulo hartatik ahalik eta lasterren irteteko. Hura ez zen izango, inondik inora, erasotzen zuten aurreneko aldia, edo bortxatzen, baita emakume bihurtu aurretik ere. Lehenbailehen heldu nahi zuen kale nagusira, han bat egingo zuelako lankide batzuekin. Azkenean, hamar bat metrora, estolda batetik ihes egiten zuen lurrunean zehar, tunelaren amaiera iragartzen zuen zirritua ikusi zuen; eta beste aldean, autoen argiak, aldian-aldian gauaren belztura alderik alde urratuz. Hamar metro haiek egin, eta une hartan erraietan katramilaturik sentitzen zuen izua umekeria hutsa irudituko zitzaion, imajinazioaren iseka gaiztoa besterik ez, umEEK logelako armairuan edo ohe azpian munstroak irudikatzen dituztenean sentitzen dutena bezalakoa. Bost metro. Gizonak, ikuskizunaz ikaragarri gozaten ari bazen ere, ezin zuen gehiago luzatu eginbeharrekoa. Ordua zen.

Ziurrena, Samanthak metalezko txistua entzungo zuen bere bizkarrera, eta, zeharka baino ez bazen ez baitzuen betarik

izan burua osorik jiratzeko, ikusiko zuen gainera zetorkion labanaren distira... Harik eta lepondoan hondoratu zitzaion arte, kolpe bakar batez bizkarrezurra bitan zatituz.

Zeharbidetik alde egin baino lehen, bere obra begiztatu zuen gizonak unetxo batez. Bere aurrean, Samantha, gorputzaren erdia putzu baten gainean eroria, salbaziotik hiruzpatalau urratsera bakarrik, aiztoa oraindik lepoan iltzaturik, zezen baten gisara; haren ondoan, arratoi lotsagabe bat, ileordearen aldamenean bueltaka, neskari lepotik behera irristatzen zitzaion odol-hari epela sabelkeriaz miazkatzeko irrikan.

* * *

Aldameneko leihatilaren aurkako burukada handiago batek iratzarri zuen Marco. Betazal astunak altxatu zituen. Furgonetan jarraitzen zuen. Bidaiaren hasiera-hasieratik inguratzen zuten muinoek eta zuhaitzek itzal txinatarrak ziruditen orain, oihal beltza jaisten ari zen zeruaren eszenatokian. Bost minutu igarota, abiada moteltzen hasi zen ibilgailua, burdin hesi baten aurrean erabat gelditu arte. Gidariak isilpeko begiradaxo bat zuzendu zion atzerako ispilutik, eta bezeroa esna zegoela ziurtatu ondoren, autotik atera, eta etxaldeko lur-eremuen hasiera zedarritzen zuen hesia ireki zuen. Artean ez ziren arratsaldeko zazpiak; guztiarekin ere, ilunabarra zen ingurumari bakarti haietan, eta ez zen aditzen motorraren marmarra beste ezer. Hesiak zabu herdoilduen karraska imitatuz zabaldu zituen besoak, eta gidaria bere jesarlekura

bueltatu zen. “Heldu gara”, iragarri zuen, labur eta zehatz, eta astiro-astiro barneratu zen hartxintzarrezko bidean, lorategi lokartuen artean. Hareak hortz-haginen artean ateratzen duen hotsa bera egin zuen legarrak gurpilen azpitik. Eraikin ilun baten aurrealderaino gidatu zuen furgoneta, eta hantxe aparkatu. Argiontzi zahar batek ñir-ñir egiten zuen nahigabeturik sarrerako atearen gainean, hotzaren eraginez lurruna zeriola. Ordaindu zuen taxia, hartu zuen eskuko poltsa, agur esan zion gidariari eta aterainoko sei mailak igo zituen ailegatu berriak. Furgonetak alde egin zuen, gizona bakar-bakarrik utzita haizeak kulunkatzen zuen argiontziaren errainu mirrinen azpian.

Atzamarra txirrinera eramán zuen eta hari eragin zion. Erantzunik ez. Berriz deitu zuen. Ezer ez. Denbora handia joan zen, beste aldean urrats baldar batzuk aditu ziren arte. Atea zabaldu zen azkenik, eta gizon baten irudia agertu zen bidaiariaren aurrean. Hirurogei urte handi jasotzen zituen bere sorbaldetan, sendoa, aurpegia olatuen tankerako zimurrez estalita, atzerantz orraztua eta lokietako ile urdin apurrak buruari ondo itsatsirik gominaz. Gorbata orlegia, *tweedezko* jaka zaharra, baina prakak bezalaxe, arreta handiz lisatua. Ahots latza zeukan, adierazkortasun handirik gabea:

–Berling doktorea, ezta?

Esaldiak gogora ekarri zion heldu berriari Stanley-k Livingston-i Tanganika lakuaren ertzetan egin zion galdera ospetsua.

–Bai, neu naiz: Marco Berling.

–Aurrera, doktore, zure zain geunden.

Gizonak ataritik aurrera gidatu zuen kanpotarra ilunpe lodian zehar. Argi eza gorabehera, saguzarrak baino hobeto moldatzen zela ematen zuen. Herrenka zebilen ezkerreko hankatik. Etxalde zahar askotan gertatu ohi denez, egur eta hezetasun usaina zerion egoitzari.

–Barkatu neure burua lehenago aurkeztu ez izana –desenkusatu zen, ibiltzeari utzi gabe–. Coleman dut izena, eta etxeaz arduratzen naiz. Sentitzen dut bene-benetan, baina Miller jaunak ez du bisitarik hartzen ordu hauetan; hala ere, bere aginduei jarraituz, gaua hemen pasatzera gonbidatzen zaitut, elkarrizketa biharko utzirik, ondo baderitzozu.

Zer egin ez zekiela geratu zen Marco. Egun osoa zeraman toki batetik bestera, eta ez zuen gogorik beste auto bat eskatu eta ostatu bila hasteko.

–Egidazu kasu: hemen geratzea duzu aukerarik onena. –Bazirudien gizon zaharrak pentsamendua irakurri ahal ziola–. Gaua da, herria urrun dago eta ordu hauetan ez duzu ibilgailurik aise topatuko.

Colemanek arrazoi osoa zuen. Azken batean, egon behar zuen tokian zegoen, eta dutxa gozo bat hartuta ohean sartzea besterik ez zuen buruan.

–Ongi da. Mila esker zure harrera onagatik.

Erdi ilunpetan beti, izugarrizko egongela batera heldu ziren. Zapaltzen ari ziren oholtzaren purrustadek oihartzun egi-ten zuten horma batetik bestera, urruntasunean erabat galtzen ziren arte.

–Afaldu al duzu? –galdetu zion brastakoan etxezainak, aurpegia bihurtu barik.

–Ez dut ezertarako astirik izan. Autobusetik jaitsi orduko, taxia hartu dut, lehenbailehen ailegatzeko.

–Sukaldea itxita dago honezkero, baina, nahi baduzu, sandwich batzuk prestatu ahal dizkizut eta egongelara eraman.

–Biziro estimatuko nizuke.

Ordularien orratzen norabidean jirutzen zen egurrezko eskailera zabal batetik egin zuten gora astiro-astiro. Eskailerako lau muturretan grifo mitologikoen irudi landuak ageri ziren: hegoak, zabal-zabal; atzapar zorrotzak, ageri. Une hartan, ezkerraldetik hamarnaka lagun bioi begira ari zirelako susmoa izan zuen Marcok. Begirada haraino mugitu, eta iluntasunera egokitzen hasita konturatu zen mamu-begi haiek paretatik zintzilikatutako koadroetako gizon eta emakumei zegozkiela. Gora zihoazelarik, etxezainaren birikien txistuak puzka egiten zuen sutegiko hauspo beroen antzera. Pasabide estu batera heldu ziren goiko pisuan, eta handik aurrera egin zuten, ate bateraino. Coleman jaunak, oraindik ere tren-makina asmatiko baten modura arnasa hartzen ari zela, eskua patriketan sartu, giltza-sorta handi dilindakaria atera zuen barrutik, eta han goian ere nahiko iluntxo egon arren, lehenengoan asmatu zuen sarrailarekin. Sartu zen gelara, eta argia piztu zuen gizonak. Logela zabala zen hura, harrizko hormen partez, egur bikainez hornitua beheko aldean, eta gezei koloreko paper margotuaz goikoan; atearen aurrez aurre, leiho bat zegoen, lore zuri-orlegidun gortina lodiez jantzia; haren aldamenean, antigoaleko ohe bat, haritzezkoa, goiko errezela eta guzti, oheburua eta lau zutoinak egurretan ederki

labraturik; beste aldean, idazmahaia, larru gorri ilunezko aulkiarekin; eta haren ondoan, komoda bat. Ate bat zabaltzen zen ezkerraldera: komun berri-berri baterako sarbidea. Hura zen, logela zahar hartan, gainerako apaindura klasikoekin bat ez zetorren bakarra.

Bakarrik geratu zenean, eskuko poltsa ohe ondoan apartatu, eta leihora hurbildu zen Marco. Hasieran, bere irudiaren isla zirriborratua, ez zuen beste deus ikusi kristalean; baina, gero, begiak harantzago jarrita, gauaren kapa beltzak kanpoaldea nola estaltzen zuen begiztatu zuen, haizearen intziri goibelak lagun. Ohean etzan zen bera zen adina luze, eta altzariak agur egin zion hasperenka, haren gorputzaren pisua gainean sentitzerakoan. Lur-jota zegoen ordurako, haraino ailegatzeko taxia, metroa, tren pareta eta autobusa hartu ondoren. Luze gabe, hatz-koskor batzuk ate joka hasi ziren eta doktorea zutitu egin zen zabaltzera joateko. Etxezainak bi sandwich eta botilatxo bat ur zekartzan bandeja batean.

–Espero dut den-dena zure gustukoa izatea.

Hauts eginik zetorren eta lanak ematen zizkion hitz egiteak ere, eskailera bigarren aldiz igo ondoren.

–Izango ez da, ba, Coleman jauna; edozein kasutan ere, ez zenuke horrenbesteko ardura hartu beharko niregatik.

–Nire lana baino ez dut egiten. –Bere onera zetorren gutxika-gutxika–. Miller jaunak erabaki du elkarrizketa bihar izango dela, eguerdiko hamabietan, ordu horretan bertan uzten baitio idazteari egunero.

–Oso ondo. Niregatik, arazorik ez.

–Bihar, esnatzen zarenean, jo txirrina. –Oheburu alboko botoi txiki bat seinalatu zuen atzamarrarekin—. Gosaria prestatzen hasteko agindua izango da. Sukaldean bertan aurkituko duzu dena, ordu laurden geroago. Jaungoikoak gabon.

Eta horrela, erantzunik itxaron gabe, alde egin zuen. Marcok bidaiatzeko poltsa zabaldu zuen eta barruan zekartzan gauza apurrak egokitu zituen komodan, bere buruari galdetzen ziolarik ea zer arraio egiten zuen etxalde hartan, eze-rezaren erdi-erdian. Segituan, ohe ertzean jesarri, eta gogoz eraso zion afariari. Aida batean zanpa-zanpa irentsi zuen dena, hain zegoen gozo. Gero, metalezko ontzitxo bat atera zuen patrikatik, zabaldu, eta pilula zuri ñimiñoa harturik, ahoan sartu zuen. Nekez lehertuta zegoen; hortaz, dutxatu gabe eta arropa oraindik soinean, ohe gainean etzan, argia itzali, eta lokartzen joan zen, ilargi izpi zurbil batzuek egurrezko sabaian nolako itzalak marrazten zituzten ikusten zuen bitartean.

* * *

Arratsalde hartan, eguzkiaren biribil goriak ez zuen itsasoan hondoratu nahi, ez zuen amorerik ematen; baina, zeruertzak, indar guztiarekin xurgatuz, barrura irensten joan zen apurka-apurka, eta horrela jarraitu zuen, urrezko ortzia lehen, infernu kolorekoa gero, eta more-morea azkenik, ur sakonetara murgiltzea lortu zuen arte. Argiaren azken dirdirek ostadarraren koloreak margotzen zituzten itsaso gainean eraikitako etxeko

egongela zabal hartan. Barruan, dozena erdi bat neskak euren gorputzak bihurtzen zituzten lizunkeriaz, musikaren erritmo geldoari jarraiki. Soineko ezin txikiagoak zituzten jantzita, zein baino zein estuagoa, gorputz lirainei ondo itsatsita, eta ikaragarritzko eskoteak erakusten zituzten hala bularraldean nola bizkarrean. Bat ere ez zen hogeitertetik gorakoa. Haien inguruan, kolore ezberdinetako edariaz betetako edalontziak, botila hustuak lurrean, hauts zuriaren aztarnak kristalezko mahai gainean... Neskek beren adatsak laztantzen zituzten dantzatzerakoan; aldaken eta bularren uhinak marrazten zituzten atzamar puntekin. Horietako bi hasiak ziren elkarri musuka; musu goxo patxadatsuak, mingainak elkarrekin korapilatuz, sakon.

Sabai altuko eta altzari gutxiko egongela zuri hartan, dena larru, metal eta beira, lau gizon ere baziren, haien artean, gutxienez, bi gauza konpartitzen zituztenak: denak ziren berrogei urte ingurukoak; eta denak, aberatsak. Eta bera zen horietako bat. Ezagutu egiten zuen bere aurpegia, leihoko kristalean islaturik. Etxe dotore haren jabea zen, eta eguzki-sarreraren ikuskizunaz gozaten ari zen bakardadean, neskei jaramonik egin gabe. Alkandora beltza eta praka beixak zeramatzan, eta bere itzal liraina nabarmendu egiten zen leiho handiaren kontra, norbaitek lepotik gora tira egin izan balio bezala. Buruko ile horiak, motz-motzak, suak hartuta zirudien ilun aurreko azken argiekin. Hiru ordu ziren klinikatik atera zela. Giza gorputzak moldatzen eta gazteagotzen ematen zuen eguna han, betiere baldin eta gorputz haien zorioneko jabeek diru nahikoa baldin bazuten

kirurgia estetikoko ebakuntza garesti haiek ordaindu ahal izateko.

Haren lagunik onenak zeharka begiratzen zion sofa gaintetik, aldian behin zurrupada txikiak kenduz eskuan zeraman gintonikari. Edalontzi zabala zen berea, izotz puskaz betea, limoi-erdi baten zukuaz lagundurik. Bere adinean, nazio osoko inbertsio-enpresarik garrantzitsuena zuzentzen zuen; hantxe jesarrita, ordea, gaztaina koloreko adats luze harekin, aurpegian zizelaturiko trazu klasikoekin, eta sekula kentzen ez zituen *ray ban* beltzekin, gehiago zirudien modelo edo aktorea, enpresaria baino.

Hirugarren gizona haren aldamenean zegoen, sofaren izkina batean erdi amildurik, izter bat bestearen gainean, neskei begirik kendu gabe horietako batzuk biluzten ari zirelako. Lau lagunen artean, hura zen ageriko lanik egiten ez zuen bakarra, ez baitzuen horrelakorik behar. Aita izandakoa nazioarteko abokatu bulegorik arrakastatsuenetarikoa-ren jabea izan zen, eta hil zenean, enpresako akzio gehienak utzi zizkion semeari oinordetzan. Lagunen aldean, ihia baino zimelagoa zen gizona, itxura gaiztokoa; ezpainik ia gabea, ile liso eta koipetsua zeukan; eta larrua, argizarizkoa, baztangak pikatutako aurpegi baten estalki. Nesken ikuskitunari so egiten zion sekula kliskatzen ez zituen begi izozgarri batzuekin.

Egongelako beste muturrean, itxura liskarzaleko tipo batek musikaren erritmoari jarraitzen zion algaraka eta barre zabalen artean, bi eskuekin neska baten titiak marruskatzen zituen bitartean. Burua kentzen zien gelako gainerako

gizonei, kaskamotza zen erabat, eta buruaren alde batean guturte beltz baten tatuajea zeraman. Bizimodua ederki ateratzen zuen trafikatzeko moduko guztia toki batetik bestera garraiatuz: armak, emakumeak, drogak... Beti ere, legez kanpo, jakina.

Nahiz eta etxeko apainketa minimalistarekin bat etorri ez, hamarnaka animalia basatiren buru disekatuak erakusten ziren horma batean zintzilikaturik; eta apalategi batean, arma exotikoen bilduma oparoa: etsaien buruak txikiagotzen zituzten jibaroen zerbatana bat; *rumal* bat, hau da, XIX. mendean Indiako *thagek* euren biktimak itotzeko erabiltzen zuten zapi horixka; Nepaleko *gurkhen* aiztoa edo *kukria*; siouxen *tomahawka*... eta horrela, munduko triburik oldartsuenek jendea akabatzeke baliatzen zituzten hainbat eta hainbat tresna.

Gela hartako gehiegikeria nabarmen-nabarmena zen ordu erdi geroago, lau lagunak biltzen ziren aldi apurretan gertatu ohi zenez.

Berak, etxeko jabeak, leihoaren aurrean jarraitzen zuen; baina, eguzkiaren itsasoratzeari erreparatu ordez, lau hankan jarritako neska batekin ari zen larrutan; adatsetik tira egiten zion irmoki, haren aurpegia sabai aldera altxatzera behartuz; aldi berean, eskua ipurtzulotik sartzen zion bigarren neska bati ia-ia eskumuturreraino, horrek, intzirika, bere klitoria indarrez igurzten zuelarik.

Handik metro gutxira, eguzki-betaurrekodunak sofa gainean segitzen zuen eserita, patxada batean, aurrean bi neska belauniko, bere zakila miazkatuz. Beso sendoekin ondo

etsita zituen biak garondotik, eta horrela, bultza eta bultza, buztana eztarriaren hondo-hondoraino sartzera behartzen zituen; behin zakila barruan, tarte batez horrela egotera derriortzen zituen biak, harik eta, arnasa hartu ezinik, erdi itota, eta begietako makillajea deseginda, goragale handiak zetozkien arte. Orduantxe askatzen zituen, eta belarrondoko galantak emanda, berriro ekiten zion jolasari.

Buruan tatuajea zeraman gizakotea, neska baten titiburuetan metalezko pintzak jarrita, haiei tiraka eta tiraka ari ziztzaien, errotik erauzi nahian bezala, zorigaitzokoaren oihuei batere jaramonik egin gabe; denbora berean, lurrean luze-luze etzanda zegoen bigarren neskatxa bati ahoa irekiarazi, eta berak goitik egiten zuen txiza edatera behartzen zuen.

Horiek guztiak gertatzen ziren artean, laugarren gizonak, ilea kopetari itsatsita eta inoizkorik zurbilen, hiru eszenei so egiten zien betzuloetan lurperatutako begi bietatik.

* * *

Marco bero-bero eginda iratzarri zen, kitzikatua oso. Guixienez, amets berria aurreko guztiak baino gozagarriagoa izan zen, eta gaua jendeari labankadak ematen igaro beharrean, bi neskarekin batera txorta jo eta jo ibilia zen. Zakila zumarra baino tenteago zeukan. Eta hori ez zen okerrena: konturatu zen amets egin bitartean hazia isuri zuela, eta arropa kendu gabe zegoenez, galtzontzilloetan ontzi bat esne trinkotu bota izan baliote bezala sentitzen zuen hankartea. Alde batera eta bestera so egin, eta non zegoen etorri zitzaion

begien aurrera pittinka-pittinka. Hura zen bezperan etxezainak gaua pasatzeko eskaini zion logela. Erlojuari begiratu zion. Goizeko bederatziak pasatxo; hortaz, hamabi ordu jarraian zerraldo lo eginda eman zuen. Altxatu zen ohetik, erantzi zuen gaueko arropa zikina eta abiatu zen komunera. Urte batzuk lehenago, sasoi betean zegoen: berrogei urte betzetetik hurbil egon arren, ile argia zeukan, luze samarra, aurpegi sendoa, ia-ia metro bat eta laurogeita hamar zentimetro, eta ezaugarri horiek guztiek kirolari edo militar baten planta ematen zioten. Orain, aldiz, bestelako irudia itzuli zion ispiluak: ilea arras moztuta zeraman, urdintzen hasia, eta dezente flakatuta zegoen, sasoi bateko gogortasuna eta kemenen baldurik. Luzaroan egon zen dutxa azpian, ur bero-beroak –ia irakiten hasteko puntuan, berari gustatzen zitzaion bezala– nola miazkatzen zion gorputza goitik behera atseginenez dastatuz. Hortzetako pastarik ezean, urez garbitu zituen hortz-haginak. Jarraian, bidaiako poltsan gorderik zeraman aitzurra atera, bizarra egin, ahalik eta ondoen garbitu zuen galtzontzilloa bainuko xaboiarekin, eta toallaren euskarrian jarri zuen lehortzen. Gero, eskuragarri zeukan arropa txukun bakarrak jantzi zituen: elastiko grisa, estu samarra, bakero batzuk eta jertse urdin iluna. Ohe ondoko txirrina zantatu zuen segituan, gosaria prestatzen has zitezkeela adierazteko. Ordu laurdena zeukan. Gortinak zabaldu, eta kanpora begiratu zuen. Nagiak atera zituen. Aurreko arratsaldeko errepidea ikusi zuen, soro-zelaiaren gainean igeri zebilen lanbroak lausotuta. Sugetzar beltza zirudien kaminoak, muinoen artean arrastaka sigi-saga, alde bietara udazkeneko

kolorez jantzitako zuhaitzak utzirik: horiak, okreak, laranjak, gorriak... Bidetik begirada irristatuz, etxaldeko lursailaren hasiera markatzen zuen hesian pausatu zituen begiak, bera zegoen tokitik berrehun bat urratsera. Bezperan, hesiak etxea eta hango lurra inguratzen zituela iruditu zitzaion; baina, orain, goizeko argitasun motelak erakusten zion oker zegoela. Hesia burdinazko bi atek baino ez zuten osatzen, tudor tankerako harrizko arku baten azpian gordeta. Etxe aldera hurbildu zuen begirada gero, ondo eskuaretutako legarrezko bideari jarraiki, eta bere edertasunean miretsi zuen lorategi zaindu haien lasaitasuna, lore-sorten ikusgarritasuna, arbolen gerizpean altxatzen ziren zenbait estatua klasikoren dotoretzia: Herkules, besoan astamakila; Afrodita, fauno baten aurretik korrika; Eros, Psikeri musuka; Perseo, medusaren burua jasoaz; Leda, beltzargari estu besarkaturik...

Hamar minutu geroago, logelatik irten, eta egongela handiraino amiltzen ziren eskaileretara hurbildu zen korridorearen barrena. Eguzkiaren erreinu beldurri batzuk iragazten ziren haraino, eta haiei esker ikusi ahal izan zuen ordu batzuk lehenago iluntasunak ukatu ziona. Koadro-arrosario luze batek lagundu zion beherako bidean: andre zurbil-zurbilak, urreak eta harri baliotsuak dizdiz; begirada basatiko militar bibotetsuak; elizgizon papargorriak, gurutzeak bularrean dilindan; mamu itxurako ume tristeren bat edo beste... eta horrela, arima herratuen moduko beste asko. Behera iritsi zen, eta eskuak poltsikoetan, ezker-eskuin begiratu zuen, itsasargiek gauero egiten duten legez. Tapizak eta zutoihalak ageri ziren zintzilik egongelako hormetatik: lehenak, irudi

mitologikoz apaindurik; bigarrenak, garai bateko liskar ahaztuen oroigarri. Zoru gainean, milioika korapiloko alfonbra pertsiarrak; eta sabaian, hiru lanpara biribil sendoak, egongelaren erdialdea beren mende hartzen zutenak. Guztietan ikusgarriena, ordea, sutondoa zen: harri beltzekoa, galanta oso, aurreko hankak jasota zituzten bi adarbakar tamaina naturalekoen artean kokatua.

Marco kuxkuxean ibili zen hara eta hona bazter guztietatik, tximiniako burruntziaekin jolasean, etxezaina herrenka azaldu zitzaion arte. Bezperako arropa eta erretxin aurpegi bera zekartzan, lozio goxoegi baten lurrina zeriola.

–Egun on, doktore. Ondo egin al duzu lo?

–Ondo baino hobeto, eskerrik asko.

–Gosaldu nahi baduzu, sukaldera lagunduko zaitut.

Betiere Coleman jaun orraztatuaren atzetik, Marcok pasabide zabal bat zeharkatu zuen. Ezkerreko alde osoa leiho hutsa zen eta lainoaren aurkako borrokan garaile ateratzen ziren izpi sortak oparo sartzen ziren kristaletatik. Leiho haien aurreko paretan, ahatetxoak amaren atzetik nola, hala lerrokatzen ziren ispilu erraldoi batzuk, bata bestearen ondoan, den-denak urre koloreko markoekin; ispiluek argiaren izpiak xurgatu, eta norabide guztietara jaurtitzen zituzten islak, are distiratsuago, korridorea argitan bainatuz. Egur usaina zegoen: argizaria eman berriko egurraren usaina.

–Ederra baino ederragoa, etxea –goraipatu zuen Marcok.

–Bai, horixe.

Aurreko egunean bezalaxe, etxezainak hizketan egiten zuen burua medikuarengana jiratu barik, keinu hori egite

hutsak bere zereginetatik urruntzeko arriskua ekarriko bali-
lio bezala.

–Eta zaharra –gaineratu zuen medikuak.

–Oso. XIV. mendean eraiki zuten, baina denboran zehar
zenbait zati erori izan dira; beraz, obra batzuk egin behar izan
dira eraikina hobetu eta zabalagotzeko. Jatorrizko eraikun-
tzatik gelditzen den aztarna bakarra iparraldeko dorrea da, eta
hor ere berrikuntza lan batzuk egin ziren, duela berrehun bat
urte sua hartu zuelako, barruan pertsona bat zegoela.

–Hildako bat egon zen, beraz.

–Emakume bat; baina, litekeena da ahotik ahora dabi-
len beste kondairetariko bat baino ez izatea, eskualde hone-
tan ez baitago inor gertaera arraro edo naturaz gaindikoren
baten berri ez duenik.

Alde batera egin zuten pasabide batetik, zerbitzarien zo-
naldera seguru asko; izan ere, apaindurarik gabeko aldea
zen hura, horma bietan itsatsita zeuzkan argi txiki batzuk izan
ezik.

–Gustura entzungo nuke.

–Zer baina?

–Kondaira.

Korridorea zeharkatu zuten, eta dozena erdi bat eskailera
maila jaitsi eta gero, sukaldera heldu ziren. Kafe egin berri-
ren usaina heldu zitzaion Marcori azuleju zuriz jantzitako gela
hartatik. Erdi-erdian, haritz egurrezko mahai astun bat ze-
goen, denborak ilundua, eta haren inguruan, burdinazko su-
tegiak, granitozko harraska, eta ondo antolaturiko eltze, la-
piko, zartagin, burruntzali, bitsadera eta aizto garbi-garbiak.